

EUSKARAZKO UDALEKUETAN (D EREDUA) PARTE HARTZEAGATIK **DIRULAGUNTZA DEIALDIA**

2024 urtea

Estella-Lizarrako Udalak, Euskara Zerbitzuaren bidez, euskara hutsez egindako udalekuetan parte hartzea diruz lagunduko du, beti ere, jarraiturik honako

OINARRIAK

1. DEIALDIAREN XEDEA.

1.1. Deialdi honen xedea da D ereduko ikasleentzat (ikastetxe publiko eta ikastoletan euskaraz ikasten dutenak) antolatzen diren euskara hutsezko udalekuetan parte hartzeak sortzen duen gastua hein batean finantzatzea. Diru-laguntza hauek 2023ko aurrekontuko 335004890001 - "Subv. Campamentos Euskera" diru-sailaren kontura joanen dira. Xede honetarako, gehienez ere, **2.000 €** erabiliko dira.

1.2. Deialdi honetatik kanpo geratuko dira, ordea:

- a. Txango eta bidaiak.
- b. Udalerrian edo udalerritik hurbil egonda barnetegi erregimena eskatzen ez dutenak.

2. BALDINTZAK.

2.1. Honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak, ikasleen legezko tutoreak, eskatu ahalko dute euskarazko udalekuetarako diru-laguntza:

- a. Lehen Hezkuntzako edo DBHko ikaslea izatea.
- b. D ereduko ikaslea izatea (ikastetxe publiko edo ikastolan euskaraz ikastea).
- c. Estella-Lizarran erroldatua egotea udalekua irauten duen bitartean eta diru-laguntza eskatu eta ebatzen den bitartean. Lizarran gutxienez ere urtebete erroldaturik egotea deialdia argitaratzen den egunean.
- d. Diru-laguntza jasotzeko ezinbestekoa izanen da Estella-Lizarrako Udalarekiko zerga betebeharrak eguneratuak izatea.
- e. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 legearen, 13. Artikuluan onuradun izateko eskatzen diren betebeharrak orokorrak betetzea.

3. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK.

3.1. Diruz lagunduko dira D ereduko ikasleentzat (ikastetxe publiko eta ikastoletan ikasten dutenak) antolatutako euskara hutsezko udalekuak, hau da, bizilekua den udalerritik kanpoko egonaldietan parte hartzeagatik sortutako gastuak.

3.2. Haur/gazte bakoitzak udaleku bakarragatik jaso ahalko du diru-laguntza.

3.3. Udalekuak 5 egun (4 gau) baino gehiago eta 15 egun (14 gau) baino gutxiago

iraun beharko du, eta udako oporraldian gauzatuko da (ekainaren 16tik irailaren 17ra).

4. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA.

4.1. Interesatuak beren eskaerak 2024ko **irailean** aurkeztu beharko dituzte Lizarrako Udalaren Erregistro Orokorrean (Sorkunde Garbiaren pasealekua 1, 31200, Lizarra), edo Estella-Lizarrako Udalaren Egoitza Elektronikoa, helbide hau du: <https://sedeelectronica.estella-lizarra.com>, eta entitatearen web orritik ere sar daiteke, www.estella-lizarra.com, Udalaren zuzeneko sarbidearen ikonotik; edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusirik dauden lekuetarikoko edozeinetan.

Eskaera Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua baimendutako erregistro ofizialeko batean aurkezten duten pertsonak horren berri eman beharko diote Udalari, eskabideak aurkezteko gehieneko epearen barnean, faxa igorri 948-548232 zenbakira edo telegrama, Lizarrako Udalari zuzendua. Bi baldintzak bete ezean ez da eskaera onartuko.

Dena den, aipatutako epea iragan eta hamar egun naturaleko epean proposamenik jasotzen ez bada, ez da inola ere onartuko.

4.2. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

4.3. Aurkeztutako eskabidea deialdi honetan ezartzen diren baldintzak edo agiriak beteko ez balitu, eskatzaileari, gehienez ere, hamar eguneko epe luzaezinean horiek aurkezteko eskatuko zaio eta jakinaraziko zaio, hori egin ezean, eskabidea bertan behera utziko zaiola, aldez aurretik eginiko ebazpena bidez Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 71. artikuluan adierazten duen bezala.

5. ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRI ETA INFORMAZIOA.

5.1. Eskabidearekin batera ondoren aipatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztu beharko dira:

- a. Eskatzailearen Nortasun Agiriaren fotokopia (udalekura joan den adingabekoaren gurasoena edo legezko tutorearena).
- b. Adinez txikia eskolatuta dagoen ikastetxearen eskolatzeko-agiria, non ikastetxearen izena eta hizkuntza ereduak zein den agertzen diren.
- c. Udalekua antolatzen duen entitateak izenpeturiko dokumentua, non hari buruzko baldintzak –euskarari emandako tratamendua eta helburu linguistikoak, iraupen data, jardueren egitaraua edo liburuxka, prezioa- eta asistentzia egiaztatzea azaldu behar diren.
- d. Udalekuaren matrikula ordainagiria (banketxeak egindakoa) non kostuaren %100 ordainduta agertuko den.
- e. Diru-laguntza jasotzeko nahi den banku-libretako lehen orriaren fotokopia (IBAN zenbakia, eskatzailea titularren artean egon da).

5.2. Udalak eskatu ahalko du beharrezkotzat jotzen dituen bestelako agiriak

eskaerak egoki ebaluatzeko eta laguntza emateko oinarri hauetan jasotako baldintzak egiazki betetzen direla ziurtatzeko

5.3. Udalak eskatu ahalko die familia onuradunei diruz lagundutako udalekua baloratzeko galdetegia betetzeko. Familia onuradunek galdetegia esanen zaien epean betetzeko konpromisoa hartuko dute.

5.4. Eskatzaileak baimena ematen dio Udalari ofizioz egiaztatzeko egunean izaten dituztela udal ordainketak.

6. DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA.

6.1. Baldintzak betetzen dituen eskatzaile bakoitzak, gehienez ere, **125 euro** jasoko ditu eta diru-laguntza hori ez da egindako gastu osoaren **%40 baino gehiago** izanen.

6.2. Diru-laguntzen zenbateko osoa udal aurrekontuek deialdia erabiltzeko gordetako diru-kopurua (2.000 euro 2024 urtean) baino handiagoa bada, hainbanaketa eginen da eskaturiko baldintzak betetzen dituzten pertsona onuradunen artean.

7. ESKABIDEEN AZTERKETA ETA EBAZPENA.

7.1. Aurkeztutako eskabideak Udaleko Euskara Zerbitzuak baloratuko ditu eta, ebazpen proposamena egiteko, ofizioz burutu ahalko ditu datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko beharrezkoak estimatzen dituen jardunbideak.

7.2. Diru-laguntzak Tokiko Gobernu Batzordearen bidez emanen dira.

7.3. Udalak diru-laguntza ukatuko die Estella-Lizarrako Udalaren tributu-zorrak dauzkaten pertsonen.

7.4. Kontzesio ebazpena parte-hartzaile guztiei jakinaraziko zaie eta bertan deialdia, egitaraua eta aurrekontu kreditua zehaztuko da, bai eta onuraduna, emandako kantitatea eta xedea. Ebazpena Estella-Lizarrako Udalaren Iragarki Oholean argitaratuko da.

7.5. Ebazpenaren kontra, bide administratiboa itxiko duena, errekurtsio hauetakoren bat jarri ahalko da aukeran:

- a. Berraztertze helegitea, egintzaren organo egileari berari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.
- b. Administrazioarekiko auzi-helegitea, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aitzina, Nafarroako Administrazioarekiko Auzien epaitegiari edo sailari zuzendua.
- c. Gora jotzeko helegitea, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazten denetik aitzina.

Estella-Lizarra, 2024ko maiatzaren 8an

ALKATEA
Marta RUIZ DE ALDA PARLA